

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 9ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Erabakiak:**

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 668/2021 Erabakia, azaroaren 9koa. Onestea Araba Garapen Agentzia Saren galerak konpentsatzeko ekarpena.

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 669/2021 Erabakia, azaroaren 9koa. Onestea esleitu dakiola Repsol Comercial de Productos Petrolíferos SA enpresari automozioiko A gasolioaren hornidura, 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 670/2021 Erabakia, azaroaren 9koa. Onestea, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hala eskatuta, 2022ko urtekoa 2021ean banatzeko 31/2021 konpromiso kredituaren espedientea (240.416,10 euro), gastuen egoeraren "BEI-BEA. AKK" partidan.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 671/2021 Erabakia, azaroaren 9koa. Onestea ematea "2021-2022 kanpainako neguko bidezaintzarako programa operatiboa"ri.

Foru Gobernu Kontseiluaren 672/2021 Erabakia, azaroaren 9koa. Onestea alda dadila Gasteizen autobus elektriko adimenduna ezartzeko lanei jarraipena emateko akordioa, Kontseiluaren irailaren 29ko 436/2020 Erabakiaren bidez onetsia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 673/2021 Erabakia azaroaren 9koa. Onestea zuzeneko dirulaguntza bat ematea Autobuses La Unión SAri eta La Burundesa, SAUri, zeinak bidaiarien herri arteko erabilera orokorreko errepide bidezko garraio publiko erregularraren P-58 Bilbo/Iruña emakidaren esleipendun baitira.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 674/2021 Erabakia, azaroaren 9koa. Onestea foru arau proiektua, Ceutako Hiri Autonomoarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bakarrik dauden adingabe migratzaileak lurralde batetik bestera lekualdatzeko eta babesteko jarduketak koordinatzeko jarduteko protokolo orokor bat berrestekoa.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 675/2021 Erabakia, azaroaren 9koa. Onespina ematea Kontseiluaren ekainaren 22ko 392/2021 Erabakiaren bidez deitutako kultura erakusteko eta zabaltzeko programak eta jaialdiak garatzeko diru-laguntzen deialdiaren ebazpenari.